

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016eko apirilaren 29a · 372. zenbakia. 26. urtea



## Etxetik kanpo, neskame

Hezkuntzaren edo zaintzaren truke etxeko lanak egitera herritik kanpo joandako oriotarren eta aiarren testigantzak bildu ditugu.

**11**

**Adarretatik helduta**  
Mikel Orbañanos

**22**

**Argazki erreportajea**  
Danbolin 20 urte

**25**

**Elkarrizketa**  
Arantza Muriana

**31**

**Sokari Tiraka**  
Anuska eta Eider



obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
heriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com



943831048  
610697668  
[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)



**Kostera**

Astelehenetik larumbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**Arriak**  
*zure arrandegia*

**EUSKO GUDARI, 4**

Balearen egunean



Galerna  
Telf: 943890416

**Menu Bereziak**

**PERTSIANAK**

AKO MAZ



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56



**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)



372

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Miriam Garcia

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Lore Berasaluze,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Idurre Telleria

## Ale honetako kolaboratzaileak

Anuska Esnal,  
Zigor Esoain,  
Iñigo Fernandez,  
Eider Goiburua,  
Iñaki Gurrutxaga,  
Iñaki Iturain,  
Mikel Orbañanos,  
Maddi Sarasua

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Rodolfo Jimenez,  
Leire Bravo (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

2015 **Bikain**  
Eusko Jaurlaritzaren  
Kulturako Saila

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Sarl Etxauzia jauregia, Baigorriin

# HASI BERTSOTAN

MADDI SARASUA

## Etxauzia

Iparraldeko Hitzan, martxoaren 11n

**1**

Etxauzia pribatua,  
Etxauzia nehorena.  
Denena den ondarea,  
denentzat den gozamina.  
Gure ide(a) (e)ta lekuak  
ez ditzagula kondena.  
Erabiliz talde indar  
eta taldeko sormena,  
jada bada handirako,  
bada laneko onena  
ametsentzat jauregia  
eraikitze onena.

**2**

Jauregi bat eraikitzen  
lehen harritik liteke has,  
herriarentzat nahi dugu,  
herritik egina beraz.  
Euskaldun bati ametsa  
ezin dakiok e babs,  
hiru milioi eskutan,  
hiru milioi aukeraz.  
Euskaldunak girelako,  
ilusioa ateraz,  
sakeletan arin baina  
borondatean aberats.

**3**

Koronarik ez daukegu  
ez bada guhaurk jauntzia,  
izan gaitzela gure  
historiaren nausia.  
Kultura, proiektu leku,  
inspiragarri zauzia?  
Egin dezagun jadanik  
irabazle den auzia  
berkonkistatik eraiki  
(e)ta gozatzera jauzia,  
gure eskuetan hartu  
dezagula Etxauzia.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua

## Balearen Egunerako pinak eta balkoian jartzeko baleak salgai

Balearen Eguneko jaia girotzeko, pinak eta balkoietan zintzilikatzeko baleak diseinatu eta egin ditugu. Herriko hainbat taberna eta dendatan jarri ditugu salgai. Salmentan lortutako dirua Salatxo Abesbatzako ekitaldiak hobetzeko erabiliko dugu. Gure helburua opera, zarzuela eta abarren kontzertuak eskaintzea da eta horretarako orkestra, banda eta bestelakoen laguntza behar dugu. Esker mila alde aurretik!

■ **Salatxo Abesbatza**

## Euskara kolonizatuta

Euskal Herriko Itzulia pasa da Oriotik. Eguraldiak lagundu ez duen arren, txirringulak bikain aritu dira, baita antolakuntza-logistika ere. Badirudi guztia ondo joan dela, baina... ziur horrela izan dela? Ez.

Herrian zabalduko *suplemento especial publicitario* delakoan, Orioko eragile guztiak –alkatea, turismo eta kultura ordezkaria, kanpineko arduraduna eta antolakuntzako ordezkaria– gazteleraz jo eta su jarri dituzte azalpenak ematen. Itzuliak oriotarron euskara suntsitu du, hikuntz-kolonizazioak berean jarraitzen du... gureak ez du erremediorik. Ez gara kapaz gure nortasun linguistikoari eman beharreko babes emateko. Euskararen arnagunea omen da Orio... kaka! ■ **Olasagasti**

## Errefuxiatuei laguntzeko itsulapikoak

Hotz Zarautz elkarteak Europa ekialdeko errefuxiatuei laguntza emateko hainbat ekitaldi antolatzen ari da: hitzaldiak, ipuin kontaketak, kontzertuak... Ekitaldi horiez gain, hainbat itsulapiko jarri dira denda eta taberna batzuetan. Orion, erdialdeko Eroskin, Gozategi fruta dendan, Arkaitz tabernan, Kolon Txiki tabernan eta Hatoz tabernan daude. Ea gehiago jartzeko aukerarik

badugun! Eskertuko genizueke xox batzuk botaz lagunduko bazenute! Gutxi bada ere, denon artean gauza handiak lortu baititzaiegu.

■ **HOTZ Zarautz elkarteak**

## Udalaren izenean, nork erabakita?

Aurrez inongo batzordetan informatu edo proposatu gabe, EAJk udalaren izenean unilateralki omenaldia egitea erabaki du Contador txirringulariari. Beste zinegotzi guztiok prentsa bidez edo kaletik jakin izan dugu horren berri. Txirringularitza munduari Orioko herriak zer egin edo omenaldia nori egin eztabaidatzekoa da, baina moduak eta moduak daude horretarako, eta kasu honetan egin dena errespetu falta ikaragarria izan da. Udalaren izenean egiten diren ekitaldien berri izatea zinegotzi guztien eskubidea da.

■ **Orioko EH Bildu**

## Eskertuz, aurrera begiratzuz

Erraza bezain zaila da eskerrak ematea. Jasotzea gustatzen zaigu, baina kosta egiten zaigu ematea. Nik, horrela hasi nahi dut gutuna, arraunean aritu naizen sei urtetan bidelagun izan ditudanei eskerrak ematen.

Zazpi urte dira Orion lehen aldiz emakumeen trainerua uretaratu zela. Garaiko emakumeen gogo eta indarra ezinbestekoak izan ziren, baina klubak mirotzen leinuan lekutxo bat egiteko asmorik izan ez balu, ezinezkoa litzake ni eta beste hainbat neska familia honen zati izatea. Beraz, eskerrak klubari pauso txiki eta, aldi berean, erraldoia emateagatik. Baina, esker berezienak gure barnean beren ubera paladaz palada utzi eta arraunerako grina piztu ziguten arraunlariei. Hasierak dira proiektu ororen garai gogorrenak, hortaz, eskertzekoa da proiektu zoroaren karga beregan hartu zuen Antxon Belokiren ausardia.

Baina, niri eta nesken arraunari gehien eman dion eta, nire ustetan, merezi duen esker gabe arraunaren

mundutik urrundua izan den gure entrenatzaile Klaudiori eman nahi dizkiot nire eskerrik beroenak. Berekin igaro ditugu emakumeen arraunaren historia eraikitzen jardundako zazpi urtetik bost.

2011n etorri zen Klaudio gurera. Gu, oraindik gure lekua zein zen ez genekien emakumeak ginen. Ausardia, gogoa eta motibazioa ez zitzaizkigun falta; baina gure buruan sinestea, baloratzea eta arraunlari sentitzea falta zitzaigun. Eta gaur, inoiz baino argiago daukat arraunlari garela, eta hori sinestea ezinezkoa litzake Klaudiogatik ez balitz. Klaudiok aski ongi jakin du guri konfiantza hori sentiarazten, bere bertute handiena gizon eta emakumeen arteko desberdintasunez jakitun, guri pertsona eta arraunlari gisa balioan jarri baitigu. Gure eskubideak gizonezkoen parean jarri ditu.

Klaudiok jakin bazekien denbora ez zela berdina igaro nola mutilentzat, hala neskentzat; baina kontziente zen gauza handiak lortzeko gai ginela. Desabantailan jokatzeko genuela begi bistakoa zen arren, unean unekoa exijitzen eta ematen, arraunlari sentiarazi gaitu. Hazten joan gara, izerdi asko isuri dugu; eta hazi ahala, beharrak sentitu ditugu. Laguntza behar izan dugu. Gure arraunkideek izan ditzaketan behar berak asetu nahi izan ditugu pixkanaka, baina, ohi legez, guztiak ez dute nire ikuspuntu bera.

Gai honen harira, azken urtetan, klubaren eta nesken artean eztabaida piztu da. Izan ere, gu, arraunlari sentitzen gara eta klubak, oraindik, arraunlari emakume gisa ikusten gaitu. Nesken arrauna indartzeko prozesuan erritmo ezberdinak eraman ditugu klubak eta gure tostak, eta horrek sufrimendua eragin digu bi aldeoi. Gatazka horien ondorio askok arrauna utzi dugu, ez baikara asetuta sentitu. Baina, nire honetan galdetzen dut, *noiz izan da txarra gehiago nahi izatearen gosea?* Inork ez du sekula arrazoi osoa, beraz, ez nuke inola ere Orioko klubeko boluntarioen lana gutxietsi nahi. Ikaragarria da egiten duten lana.

Jada arraunlari ez naizen arren,

## Balea harrapatu zuten patroien inguruko datu eta argazkien bila

Balea harrapatu zuten traineruen patroiak ziren Manuel Olaizola, Manuel Loidi, Xixario Uranga, Gregorio Manterola eta Eustakio Atxaga. Horien inguruko informazioa eta argazkiak bildu nahian gabilta. Lan horretan laguntzerik baduzue, jarri gurekin kontaktuan, mesedez. Esker mila.

Orioko emakume arraunlariak ahizpa sentitzen ditudan honen larrutik, beste hau ere eskatzen dizuet: beharrak berdinak ditugula ohartu, bioi berdin baloratu, material berdina eskaini eta traineruen arteko parekidetasuna lortu. Bide horretan, Orio Arrauketa Elkartearen webguneko historiaren atalean, kostata uretaratutako emakumeen trainerua gehitzea izan daiteke lehen urratsa. Etorkizunean bada ere, egungo haurrek duintasunez arraun egitea gustatuko litzaidake, burua tente eta bihotza hori.

Neskak, maite zuen burua, errespetatu eta ez konformatu. Aurten bai! Zuzendaritza, klubaren printzipioak izan daitezela denentzat berdin, ez egin faboritismorik zuen seme-alaben artean. Orio, jantzi estropadak horiz, dakizuen moduan, eta herriko mutilak animatzeaz gain neskek ere animatu.

## Balearen Eguneko zenbaki berezia maiatzaren 27an

Datorren hilabeteen bi papereko banatuko ditugu. Ohiko zenbakiaz gain maiatzaren 14ean ospatutako den Balearen Egunari lotutako papereko zenbaki berezia argitaratuko dugu. Zenbaki horrek argazki bilduma zabala izango du, baita intereseko hainbat artikulu ere..

Herriren batek horrenbesteko afizioa badu, zuenak du eta. Klaudio, esker mila gu arraunlari egiteagatik, gugan sinesteagatik. Egungo taldeari, eskerrik asko emakume askoren ametsarekin jarraitzeagatik.

Izan zirelako izan gara, izan garelako zarete, eta zaretelako izango dira. Mila esker denoi, mila esker Klaudio! *Eguzki printzek, urrez jantzia, garaiz mina darama leia ontzia.* ■ **Onintza Olaizola**

## Sareak salgai

Aurten balearen eguna ospatuko dugu, eta dakizuenez, azken urteetako ohiturak jarraituz, balkoiak sarez apainduko ditugu itsaso eta arrantza mundua gogorarazteko, arrantzaleek egindako lana onestearekin batera. Horregatik, DBH3-ko ikasleok sarea salgai jartzea erabaki dugu, irabazitako dirua Ikas-Bidaiarako gordez. Sare

salmenta ikastolako plazoletan izango da, hilaren 25tik aurrera, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 16:45etatik 17:30ak aldera. ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH3-ko ikasleak**

## Santioko eskolako enafaria

Santion eskolan ibilitakoen enafaria egingo dugu datorren maiatzaren 7an, Ashe jatetxean. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 600 743 189. ■ **Maria Eugenia Atxega**

## Saregile direnei eta izan direnei

Arrantza, historikoki, herriaren sostengua izan dela ez da inongo gezurra. Ezta zu gabe arrantza mundua aurrera ateratzea oso zaila –edo ezinezkoa– izango zela ere.

Zuri, itsasoan daudenen baitan bizi –izan– zaren horri, etxean zaintza lanetan geratu zaren horri, arrantzaleak lehenbailehen itsasoratzea ahalbideratzen duzun horri, gorazarre egin nahi dizugu. Itzalean egonagatik ere, zure lana oso garrantzitsua delako. Balearen Eguna, arrantzaleena ez ezik, zurea ere badelako.

Horregatik saregile bazara, edo inoiz izan bazara, maiatzaren 14an, 13:00ak aldera herriko plazara gerturatzeraz gonbidatzen zaitugu. Festa giroan, guztiok elkarrekin, zure lana eta izana gorai patuko dugu. ■ **Xaltxerak**

## EZKONTZAK

- Veronica Salvadores eta Alberto Gundin, Orion, apirilaren 15ean.
- Iñigo Del Hoto eta Edurne Aldasoro, Orion, apirilaren 14an.
- Gotzon Igoa eta Elisabete Palacios, Orion, apirilaren 11n.
- Jose Antonio Urdangarin eta Franciela Denise Rabottini, Orion, martxoaren 19an.

## HILDAKOAK

- Inaxio Manterola Iburguren, Orion, apirilaren 13an. 73 urte.
- Josefina Ondoazabal Indo, Orion, apirilaren 2an. 75 urte.
- Manuela Zubimendi Esnal, Orion, martxoaren 31n. 98 urte.
- Elena Lizaso Alkorta, Orion, martxoaren 18an. 87 urte.
- Aniceto Tamayo Paquico, Orion, martxoaren 17an. 60 urte.

## JAIOTAKOAK

- Elene Juaristi Garate, Orion, apirilaren 14an.
- Jon Malaxetxebarria Uranga, Orion, apirilaren 7an.
- Martin Olaskoaga Miralles, Orion, apirilaren 2an.
- Xua Lopetegi Salegi, Orion, martxoaren 25ean.
- Eki Manterola Mateos, Orion, martxoaren 21ean.
- Mikel Ostolaza Pertusa, Orion, martxoaren 16an.
- Amaia eta Ekain Ibarbia Lete, Orion, martxoaren 14an.
- Amets Esnaola Eizagirre, Orion, martxoaren 10ean.

Publizitatea kontratatzeko:

**Karkara**  
688 859 682 (Idurre)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus





Jende mardoa bildu zen Txakolin Egunean, ohi bezala. KARKARA



Musika Eskolakoek antolatutako Danbolinfest jaialdia. KARKARA



Oriotik Arantzazurako bidea egin zuten Aste Santuan, oinez. MENDIBELTZ

# Udaberria Aia eta Orio erara

“Baina oriotarrentzat festarik potoloenetakoa iristear dago. Maiatzaren 14. egunian, balia agertu zan...”

**M**atrakaren hotsak esnatuko zituen asko eta asko; beste asko, ordea, herritik kanpo eta akaso parrandaren hondarretan, oraindik oheratzeke, harrapatu zituen matrakaren soinu lehorrak.

Aste Santuetan herritik joaten dira asko eta asko, eta beste asko herrira etortzen dira. Bisitariak izaten ditugu kristauen liturgia aldian, jai egun erlijioso hauek bidaiatzeko aprobetxatzen baitituzte askok. Aste Santuen aitzakian, aurretiaz garizuma gutxik egin zuten. Udaberriarekin udara gertuago ikusten dutelako, aldiz, dezentek utzi zuten oporraldi gastronomikoa beste baterako.

Aiarrek ez, ordea. Apirilaren lehen igandean Txakoli Eguna ospatu zen. Giro paregabea egin zuen eta eguzkipean txakolin eta txahal pintxo ederrak janez pasa zuten goiza.

Kirola egiteko aprobetxatu zuten beste batzuk, eta Oriotik Arantzazurako bidea ibilian egin dute. 60 kilometro egun bakarrean, 4:00etan plazatik abiatuta arratsaldeko 19:00etan bukatu zuten ibilbidea. Txirringulariek kilometro horiek bikoiztu zituzten, baita Orio eta Aia zeharkatu ere.

25 urteko ibilbidea egin du Danbolin Musika Eskolak, eta ospatzeko Musikafest jaialdia antolatu zuen apirilaren 15ean eta Danbolinfest apirilaren 16an.

Baina oriotarrentzat festarik potoloenetakoa iristear dago. Maiatzaren 14. egunian, Orioko herriko barraren aurrian, balia agertu zela aitzakia hartuta, 2006tik bost urtez behin ospatzen den Balea Eguna ate joka dago. Aurten tokatzen da, hamabost egun barru arrantzale eta sare jostun izango zarete asko. Zarenak zaretela, batu festara eta gozatu, bost urtera arte ez da berriz Balea Egunik izango-eta!

# Zer egingo duzu Balearen Egunean?



“Herri bazkaria antolatu dugu gaztetxean”

**H**erriko gehienentzat bezala, niretzat ere festa eguna izango da Balearen eguna. Goizetik irtengo naiz kalera ziurrenik: lanean jai eguna hartzea lortzen badut behintzat.

Eguerdian, herri bazkaria antolatu dugu Gaztetxean eta han izango naiz, buru-belarri lanean eta festaz gozatzeko. Balearen eguna aprobetxatuko dugu Gaztetxeari inpultsoa emateko eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditut gaztetxeko teiltatu eta barra berria ezagutzera.

Balearen egunean, egun handia da Orion eta jai giroan ospatu nahi dugu gaztetxea eraberritzen eginiko lanak.

**Egoitz Dorronsoro**



“Ez nago gaian oso sartua, ez dut gertutik jarraitzen”

**L**ikasbidaia egin behar dugu aurten, eta horretarako proiektu bat ari ginen lantzen ikastolan, Balearen Egunari lotutakoa. Orduan esan ziguten antzerkia egingo zutela eta ikaskide batzuekin batera parte hartzera animatu nintzen, antzerkia gustatzen zaidalako.

Astean bitan ditugu entseguak eta oso gustura aritzen naiz, antzerkian beti pasatzen dut ongi. Familia bateko semea izatea egokitu zait.

10:00etan hasiko da antzerkia eta hiru lokalizaziotan egingo dugu. *Pilliku* plazan, *Zakilaneko* aldapan eta *Pilliku* plaza baina gorago. Niri *Pilliku* plazan antzeztea egokitu zait.

**Ioritz Tapia**



“Lau urte nituen azkenengo Balearen Egunean”

**E**z dut ondo gogoratzen azken Balearen Eguna. Oso txikia nintzen. Lau urte nituen. Zerbait oroitzen dut, baina ez asko.

Ikastolan oraindik ez dugu kanta abestu, baina normalean egiten dugu. Egingo dugula pentsatzen dut. Gustatzen zait kanta, pixka bat. Eta badakit, lehen estrofa behintzat bai.

Balearen Egunean jantzi bereziak jartzeak ez dit ilusio handiegia egiten, baina, beno.

Lehenago ere ikusi dut bale arrantza, bideoan. Benetako balea nola harrapatzen zuten ikusi nuen. Eta antzerkiaz ere gogoratzen naiz pixka bat, baina ez oso ongi.

**Urko Bravo**



**Hilarriak eta marmolak Azpiroz S.L.**  
San Esteban auzoa, 18 (Gilisagasi baserria) Usurbil

**Orioko eta Aiako hilerrietarako zerbitzua**

- Hilarriak eta panteoiak
- Harriak inskripzioak
- Panteoietan mantentze eta garbiketa lanak
- Argazki zeramikoa

**627467216**

marmolesazpiroz@hotmail.com  
<http://marmolesazpiroz.wordpress.com>






**Tf: 943 130 438**




**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net



**IGLESIAS SARRILAGILEAK**

**24 ORDUKO ZERBITZUA**


Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerrajerros@yahoo.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATEAK IRUKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKUEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**PIZZERIA KALETA**






ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46



**J. MAIZA AROZTEGIA LEIHO ISOLATZAILEAK (PVC)**

- \* INSTALAZIO OSOA
- \* OSZILOBATIENTEA
- \* ALUMINIOZKO PERTSIANA
- \* BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- \* BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4

 70 x 130 420€	 120 x 120 530€	 120 x 220 630€
---	--	---

TEL. 690 99 39 32  
943 30 07 88

Antxiola, 19 - 1.C Orio  
[www.carpinteriamaiza.com](http://www.carpinteriamaiza.com)  
[info@carpinteriamaiza.com](mailto:info@carpinteriamaiza.com)

ALUMINIOAN ERE AURREKONTUA  
KONPROMISORIK GABE



**KNOXGA TXIBI S.L KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**Carmen eta Txomin ARANDEGIAK**



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**arkaitz taberna orio**

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**LUXARBE igeltseritza**

- Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.
- Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe
- Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkontza.net

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa

**argine**

15eko dekontasun familia sgarrien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889  argine/jantziak





M. TARANTINO

# “Gauza asko erakusten ditu kirolak, baloreetan hezten zaitu”

## Marivi Tarantino

Atleta ohia

Erreferentziazko emakumeak izan zirelako omendu dituzte Realak eta DSS16-k. Aitortza hori Ahotsak izeneko erakusketa baten bidez egin diote Marivi Tarantino atleta ohiari. Bizitakoak gogoratzeko balio izan dio, gogoeta egiteko.

### O. ARTOLA

#### Gogoetari helduz, nola oroitzen dituzu garai haiek?

Orduan apenas zegoen garraio publikorik. Proba eguerdian izan arren 9:00etako autobusa hartu behar izaten genuen. Aitak ere eramaten gintuen, baina salbuespenak ziren egun horiek. Eskolara joateko ere horrela ibiltzen ginen. 6:30ean jaikitzen ginen, elizako matutiarekin.

#### Entrenatzeko komeriak izaten zenituzten orduan.

Aste tartean ezin genuen entrenatu, eskolatik 18:30ean iristen baikin eta ez baikenuen astirik Donostiara joateko.

#### Atletismoak ere aldaketa nabarmenak eman ditu ordutik...

1963an hasi ginen atletismoan, orduan egin zen Gipuzkoako lehen txapelketa. Gerra baino lehen zerbait egiten zen, baina gutxi. Gerra ondoren debekatua egon zen, ez zelako kirol femeninoa kontsideratzen.

#### Zu ere urte horretan hasi zinen?

Txapelketa nazionala zegoen Bartzelonan, udan. Emakumeek, txapelketara joan ahal izateko, 4 metroko muga pasa behar zuten luzera jauzian. Lagun batzuei anaiak esan zien neskak egon bazeudela, baina inor ez zela kapaza hori egiteko. Eskolan badago bat egiten duena, erantzun zien. Anaiak ez zien sinesten.

#### Eta hori zuzinen.

Bai. Hirurok hondartzara joan ginen asteazken batean eta hondar tartean salto egin nuen. Pasa egin nuenez larunbatean Anoetara joan ginen, proba egitera. 13 urte

nituen. Kupituta nengoen. Gogoan dut 100 metroko proba eta luzera jauzia egin nituela. 4,15 metro saltatu nituen.

Hortaz, muga pasa nuenez, Bartzelonara joan nintzen eta Realak fitxatu ninduen. Dena batera izan zen.

#### Jendeak Real futbolarekin lotzen du. Orduan ere horrela al zen?

Jendeak hori uste zuen, futbola bakarrik zela. Baina Realak beste esparru askotan ere izan ditu taldeak eta kirolariak. Nesketan, adibidez, duela gutxi arte Realak ez zuen talderik. Gu izan ginen aurrenetarikoak.

#### Udan izaten ziren orduan lehiaketak, ezta?

Gu hasi ginenean ez zegoen pista estalirik. Lehendabizikoz 1967an lehiatu nintzen pista estalian, Madrilen, Espainiako Txapelketan.

#### Eta baliabideak, nolakoak ziren?

Lehen salto hura zapatila arruntekin egin nuen. Geroago iltzeak zituztenak erabili nituen. Lurra ere asko aldatu zen: hasieran errautsa zen, gero gomazkoa eta azkenik tartanezkoa.

#### Aldatu ez dena sakrifizioa izango zen...

Diziplina, esfortzua, sakrifizioa, bizikidetz... gauza asko erakusten ditu kirolak, baloreetan hezten zaitu.

#### Dena den, kendu baino gehiago eman egingo zizun atletismoak...

Oso ondo pasatzen nuen, asko disfrutatu nuen. Ask.



**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

**Ubegun industriagune, 4**  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



**E&XP**

ELEKTRIZITATEA  
*Ander Expósito*

943 831 774  
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**MENDIZABAL**  
**ARROZTEGIA**  
*Nearriko armairak  
eta egurrak*

943 831 175      Altxerri bidea  
645 708 491      Bell-Alai etxea  
mendiaroztegi.net      20810 Aia-Orio

**PATXI OLIDEN**

HERATEGIA  
PATXI  
OLIDEN  
BAGATEGIA

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txarizo, kraketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**2GURPIL**



Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orrio (Gipuzkoa)

Tf. 943 835 980    Wi www.2gurpil.com    E bigurpil@hotmail.com

**Gabon**  
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orrio  
Tf. 943 13 15 17

**sinergia**      FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA      WWW.SINERGIA-WEB.COM  
Tf.: 943 130 577      685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



**UDALEKU MUSIKALAK**

Uztaia eta abuztuak,  
astoluenetik oskulera  
- 930etatik 2300etara -  
8 eta 12 urte bitarteko gazteentzat  
musika talerak

— ANIMA ZAITEZI —

**617584430 / 638729564**  
HTTPS://FACEBOOK.COM/WOODCOCKMUSIKAKADEMIA



**ASADOR XIXARIO**

Eusko Gudaren Kalea, 2  
Tel. 943 831 019 - ORIO

**SU KIA**  
TABERNA - JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tf.: 943 892 128  
ABAROMEN 10, 1. BARRUA

*Lizaso*  
dekorazioa



Tf:  
**943 83 07 84**

Faxa:  
**943 24 87 15**

**Eusko Gudari, 48**

**TAILER MEKANIKOA      AUTO LAN**



Pelotari 5, Orrio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

# Trebiñu: nahia eta ezina



Mikel Orbañanos

**Sentsibilizaizoaren mugatik oso urrun gaudela esan dezaket, geure ingurura gehiago begiratu beharko genuke eta historiari ere so egin**

utariko askok, baztertua dugun Euskal Herriko mapari gainbegiratu bat eman eta Arabako lurraldera begiak zuzenduko bagenitu, haren bihotzean lurrez inguratutako uharte bat ikusiko genuke. Trebiñuko konderrria hain zuzen ere. 1200. urteaz geroztik, Gaztela eta Leonen jabetzean dago. XI. eta XII. mendeetan Nafarroako Erresumaren esku egon zen, Gaztelaren jabetzan egon aurretik. Baina zer dakigu benetan Trebiñuko auziari buruz? Ezer gutxi.

Burgos 105 kilometrotara dago; Gasteiz, 18 kilometrora. Baina distantziak distantzia, trebiñarrek oso garbi daukate arabarrak direla. Bestalde, Arabarekin dituen loturak ez dira geografikoak bakarrik; sozialak, kulturalak, eta ekonomikoak ere baitira.

Egunerokoari dagokionez, gehienek Gasteizen igarotzen dute denbora gehien, lanarengatik edota ikasketengatik, besteak beste. Biztanleriaren ia erdia Gasteizen nahiz ondoko herrietan dago erroldatua, batez ere hezkuntza eta osasun zerbitzuengatik. Trebiñun erroldatua egonagatik, zenbait kasutan ez diete onartu larrialdi egoera batean Gasteizeko ospitalean artatzea. Gauzak horrela, Burgosko edota Mirandako ospitaletara joan behar izaten dute.

Hainbat saiakera egin dituzte Trebiñuko konderrria Arabara batzeko. Azkena, 1998. urtean egindako kontsulta izan zen. Herritarren gehiengoak –%68– bat egin zuen Arabara batzeko prozesuarekin, hala ere, Burgoseko gobernuak ukatu egin zien haien eskaera. Gurean, Eusko Jaurlaritzak ere saiakerak egin ditu bat egitearen aldeko ibilbidean. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago indar handirik gabeko urratsak eman direla. Auzia Madrilgo Gorteetara ere eramatea lortu zuten –2014–, baina gehiengoak –PP eta PSOE– ezezkoaren alde egin zuen. Ildo beretik, hil honetan Trebiñuko Udalaren osoko bilkuran onartu dute Lege Organikoaren bide horri ekiteko proposamena, eta Eusko Legebiltzarri eskatuko dio Espainiako Kongresura eramateko.

Prozesua astiro doa eta euskal gizarteak duen interesa ere nolana hiko da. Sentsibilizaizoaren mugatik oso urrun gaudela esan dezaket, geure ingurura gehiago begiratu beharko genuke eta historiari ere so egin. Beste gauza asko bezala, Trebiñu Arabara batzeko nahia ere gure esku baitago.



Olatz Artola Apeztegia

## Kalabaza gehiegi

ekula ez dizkidate Orion bezain beste kalabaza eman. Barra-barra jaso ditut ezezkoak, baina Orion adina ezetzik, inon ez.

Bakarrizketan amaitu dut sarritan. Haritik tiraka, elkarrizketa nola luzatu ez dakidala ibili naiz maiz, baiezkoa emango zidanaren esperantzarekin. Beste batzuetan, ezezkoa jasoko nuenaren jakitun, erantzuteko beta ere ez dut eman. Askotan inozo hutsa izan naiz, baietz esango zidala uste eta, usteak erdia ustel, kaka putza.

Jaso ditut ezezko lehorrak, hotzak, xamurrak, goxotasunez esandakoak... Baina ezetz, harro edo ahos-ñarroz esanda, beti da entzuteko deserosoa, belarrirako hots gogorra.

Gerturatu eta hitz egiten hasi ahala eskapo egin dute askok. Foniatrarena edo logopedarena joatekotan izan naiz, akaso ahots grabe honen errua baita. Igual hori da kalabazak ez jasotzeko sendabidea.

Niri goxo-goxo bizkarra emateko erremedioa beren laguna nigana arrimatzea da askorentzat. Beren izena esan baino lehen gertuen duten laguna aurkezten didate. Ri-rau batean fardela lagunari pasatzen diote.

Eta horrela ibiltzen naiz, ezezkotik ezezkora. Konfiantza galtzen hasia naiz dagoeneko, eta hori, 25. herrian galdezka besterik ez ditudala egin.

Zuek zarete nigan konfiantza berreskuratzeko sendagaia, kalabazak ez jasotzeko sendabidea. Esker mila batzuren batzuk konfiantza izan eta hilero gure galdera erantzuteagatik.





## Jubilatuen eguna

Apirilaren 6an jubilatuen eta pentsiodunen eguna ospatu zuten Orioko adinekoek. Urtero bezala, 12:00etako meza entzunez hasi zuten eguna eta, ondoren, Aginagako Errasti sagardotegira joan ziren bazkaltzera. Sagardotegia jendez lepo egon zen, ia beteta, eta giro ederra izan zuten. Jarrai dezatela urtez-urte, beti bezain sasoiko jubilatuen eguna ospatzen!



“Konturatzen ginen bakoitza bere esparruan ari zela burua gehiegi altxa gabe. Ezinbestekoa dugu ondora begiratzea, kulturgintzan ari diren beste elkarteak zein kezka duten jakiteko”

**Jon Agirresarobe**, Jalgiri buruz, Tolosaldeko Atarian, apirilaren 20an.

“Berritasuna gustatzen zaio jendeari. Ikusmin handia sortu dute esku bakarrarekin egindako ahaleginek. Batzuek esaten didate: *pentatu ere ez nuen egingo emakume bat 100 kiloko harria esku bakarrarekin altxatzen ikusiko nuenik*”

**Idoia Etxeberria**, harrijasotzailea, Berrian, apirilaren 26an.

*Garbine Arregi* *Moda eta osagarriak*

Herrero plaza, 5  
635 706 265

*jauregietan goizez zabalk!*

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrosia  
Zefaleak ...

Masaje terapeutikoa,  
bentosa, akupuntura,  
eskuako terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 behe

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agenzia

**ASEGURUAK**

**CCCI**  
CARABEL, CIVITIL, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBINE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 59 43

www.facebook.com/ROSADEMANDA

BIOKA DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

**BODEGAS Gailur**

GIROT BANCOS de EBRO  
Tel/Fax 943 80 91 58  
www.bodegasgailur.com

Arabar Errizia

**ZUDUGARAI**

*Galariako Txakolina*

Tel. 943 83 03 80  
Fax 943 83 50 58  
tudugarai@tudugarai.net  
www.tudugarai.com

**BXPport**

Barrio Santio Erreka, 910 Ala  
Tel. 943 89 44 28  
www.bpxtecnificacion.es

Oinarrizko Esfortzu Proba  
(Behaketa y Elektrokardiograma)  
+ EKOKARDIOGRAMA : 145€

Esfortzu Proba Aureratua  
(Behaketa, Elektrokardiograma  
eta azido laktikoa)  
+ EKOKARDIOGRAMA : 169€

**Katu Horia**  
albariarreza kishika

ESTROPALARI, 10  
20510 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia:  
688 89 11 29

www.katuhoria.com



# Etxetik urrun, etxeko lanak egitera

14 urterekin utzi zuten etxekoen altzoa oriotar eta aiar askok neskame lanetan aritzeko. **Kaxilda Tolosarekin, Itziar Olariagarekin eta Maria Illarramendirekin bildu gara**, etxetik kanpo bizitako esperientziaren inguruan hitz egiteko.





**TESTUA: O. ARTOLA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**L**arre motzean hezitako askok belar onean hazten ari zirenen etxera jo behar izan zuten, neskame. Etxeko atea jo eta etxeko andre bila zebiltzan horien altzora joan behar izan zuten batzuk, familiaren habia utzita. Ate joka ibili ziren beste batzuk, atea zabalduko zien baten baten bila.

### **Gaztarorik bizi gabeko gazteak**

Mariak 14 urte zituela aita joan zitzaizen Illarramenditarrei. Kasik, doluminak ematera joan ziren bi lagunak gisan agertu ziren etxean. Sei seme-alaba haztearen eta hezitzearen karga arintzeko zaharrena etxetik kanpora eramateko proposamena egin zioten alargunari. Pisu bat kentzeko berak eramango zutela esan zioten, ikastera eramango zutela. Ikasketa gutxi, baina ikasi asko egin zuen Mariak

Getxoko Gaztelueta eskolan bizitakotik. Hil horretan bertan joan zen Maria Opus Deiko eskolara. Lehen hilabeteetan bakarrik izan zuen tarte txiki bat ikasteko.

Frantza ikastera joan zen Itziar Olariaga Baionara, 13 urte zituela. Zegoen gutxiarekin hezitakoa zen Olariaga eta dirudunen eskola batera joan zen. *Kate motzean lotuta nengoen, etxean ez baitzegoen dirua soberan*, azaldu du Olariagak. Eta horrek eragina izan zuen kanpora joatean, lanaren truke ikasteko aukera izan baitzuen. Soldatarik ez genuenez, azkenean gastua ginen gurasoentzat.

Kaxilda Tolosa ez zen ikasteko asmotan joan neskame. Hasieran Zarautzen izan zen, baina esperientziak garratzetik asko zuenez maleta egin eta herritik hirirako bidaiara egin zuen. Donostiara joan zen. *Horrelako esperientziekin asko ikasten da. Baserrian geratuz gero, ez nituzke ikasi ditudan gauza asko ikasiko*. Helburu horrekin joan zen Tolosa Donostiara, esperientzia berriak bizitzeko eta horietatik ikasteko.





“Ni oso pozik egon nintzen Baionako eskolan, gustura”

**ITZIAR OLARIAGA**

### **Etxekoandreen neskame**

Zintzo demonio bete behar izaten zituen *numerario* eta *super numerarioen* esanak Illaramendik, eta ez ziren historia edo aljebra lezioak izaten haien ahotatik ateratakoak, zoko guztiak garbi-garbi uztekoak baizik.

Garbitzeaz, sukaldean laguntzeaz eta guztia presto izateaz arduratzen zen Tolosa Rodil jatetxean.

9-10 laguneko taldetan egiten zuten lan Baionako eskolan. Maila ekonomiko altuko ikastetxea zen. Olariagaren taldearen ardura jangela zen. Goizean goiz hasten ziren lanean, 7:00ak inguruan. Eguerdian, bazkal ostean, bi orduko eskola izaten zuten. Eta gero, berriz, lanera itzultzen ziren. Afalordua baino lehen ere ordubete izaten zuten ikasteko, baina gero afaria prestatu behar izan zuten. *Diziplina handia eduki behar izaten genuen*, aitortu du Olariagak.

Diziplina handiko lana zen Tolosarena ere. Garbitzeaz, sukaldean laguntzeaz eta janaria Anoetan banatzeaz arduratzen zen, besteak beste, Rodil jatetxean. Gogorra zen lana, eta gogor hartzen zieten nagusiek ere. Lanean urte mordo zeraman jendeak utzi egin zuen. *Familiako negozioa zen, senar-emazteak eta koinatua zeuden lanean. Eta horrelakoetan, badakizu, beti saltsa*, laburtu du.

### **Hautsak harrotu zitezkeen tokian, hautsa garbitu**

*Goizeko 7:30ean jaikitzen ginen. Tunel batetik gizonetzkoen eremura joaten ginen, berak elizan zeuden bitartean, ezin baikenuen elkar ikusi*, azaldu du Illaramendik. *Tunel batetik?*, galdetuko duzue. Bai, bai; tunel batetik. Pasabideak batzen zituen emakumezkoen eta gizonetzkoen eraikina. Tunelaren erdian logela txiki bat zegoen; eta logelan, ohe bat. *Ohe bat?* harridura handituko zitzaizuen, ziur. *Bai. Besterik ez zuen*, argitu du Illaramendik. *Umea nintzen hori ikusi nuenean, baina...*

Eten puntu ugari izan ditu Illaramendiren solasaldiak, tunelarena ez baita gogoan duen arrakala bakarra. Oroitzen du emakume eta gizonetzko asko herri berekoak zirela eta adin tarte antzekoa zutela. Horri ere susmo txarra hartzen dio, kasualitatea ez dela uste du.

Olariagaren eskola mojena izanagatik, ez zen sekula moja izateko lotua edo behartua sentitu. *Nola ba, ginenarekin!* Portaeran beti nota txarra jartzen zietela kontatu du. *Gu ez ginen lo gelditzen. Mojak ezezkoa emanda ere, gure artean arrazoirik ez zuela pentsatzen bagenuen, lortu arte saiatu eta saiatu aritzen ginen.*

Zelebrequeria batzuk aipatu ditu: *ez dut gogoan astebete edo hamabost egun ziren, baina tarte horretan ezin izaten genuen mojekin hitz egin. Zaila izaten zen hori guretzat...* Isilean gauza gutxi gordetzen zituzten Olariaga eta lagunak. Mojei ezizenak jarri eta zirikatzen aritzen baitziren. Gustuko ez zuten jana paperean bildu eta komun zulotik botatzen zutela ere kontatu du. Txokolatea ere gordetzen zuen, baina ez botatzeko, gehiago jateko baizik. Merienda guk prestatzen genuen. Txokolatea izaten zen. *Prestatzeaz gain, jateaz ere arduratzen nintzen. Patrikan gordetzen nuen, besteei ere banatzeko*, kontatu du.



### Lotura asko eta askatasun gutxi

Denbora librea apenas izaten zuten. *Eguna lanean pasatzen nuen*, aitortu du Tolosak. Jatetxeko lanak ez ezik, etxean ere lagundu behar izaten baitzuen aiarrak.

Lanerako bizi ziren. Egun argitan jaiki, eta gosaldurako orduko lanerako pronto zeuden, iluntzera arte. Lana besterik ez zuten egiten Opus Deiko eskolan ere. Tutore bat zuen bakoitzak, eta Illarramendiri tarteka eskolatik ateratzea egokitzen zitzaion, bere begiralearen lana erosketak egitea baitzen. Azokarako bidaiak Illarramendiri autoestimua igotzeko eta parekorik ez zuela sinistarazteko erabiltzen zituen. Labur esanda, Opuseko kide izatera animatzeko; bere hitzetan, *burua jateko. Guk garbi ikusi ez arren, Jaungoikoak hori eskatuko zigutela zioten. Isilagoak gineno i etenik gabe esaten zizkiguten horrelakoak*. Berak irmo esaten zuen ezetz. *Traba gisa mutilak gustatzen zitzaizkidala esaten nien, baina hori horrela izanda, Opuseko kide izateak balio handiagoa zuela erantzuten zidaten*. Ez zegoen balio zien aitzakiarik.

Mutilekin hitz egiteko ere oztopoak zituztenez, gezurretan ibili behar izaten zuten Getxoko Gaztelueta eskolan. *Neskame joan aurretik mutil bat ezagutu nuen Eibarren, hara joaten bainintzen udan, amona bisitatzeraz. Izebak helbidea eman zion, baina mutilek ezin ziguten idatzi. Orduan, neska balitz bezala idazten zidan*.

Tolosak izaten zuten aukera haizea hartzeko, baita mutil lagunarekin elkartzeko ere. *Hara joan aurretik topatu nuen bikotekidea, Erretzabal baserrikoa. Tarteka Oriotik Donostiara etortzen zen, bisitan*. Gero, neskame izateari utzi eta ezkondu egin zen. *27 urte nituen, banuen ezkontzeko garaia*. Ezkondu eta etxean lan egitea egokitu zitzaion. *Senarra arraunlaria zen. Aitak begi onez ikusten zuen hori. Aitzakia horrekin niri egokitzen zitzaidan etxean lan gehien*

“Ordutik, elizarekin nituen harreman guztiak hautsi ditut”

MARIA ILLARRAMENDI

“Gaiztakeria asko egiten ere ikasi nuen Rodil jatetxean”

KAXILDA TOLOSA



*egitea.* Jatetxean ikasitakoak praktikan jartzeko ere balio izan zion, tarteka sukaldean aritzen baita oraindik ere.

### Betirako marka

Halabeharrez utzi zuen Baionako eskola Olariagak. Bi urteko egonaldiak egiten zituzten, ezin gehiago. Azkenerako alde egiteko gogo bazuen ere, irribarrearekin gogoratzen ditu garai hurak: *ni oso pozik egon nintzen, gustura. Joan behar nuenean denentzat pastelak enkargatu nituen aurreztutako diruarekin. Mojak harrituta gelditu ziren, kontatu du.*

Asko ikasi zuten bizitakoaz. *Gaiztakeria asko egiten ere ikasi nuen han, barrez Tolosak. Laneko kontuez gain bizitako esperientziak ere ikasgai asko eman zizkiola aitortu du aiarrak, ez da damu Donostiara joateko erabakia hartu izanaz.*

Erabakiaren dolurik ez duen bestea Olariaga da. *16 urte nituen alde egin nuenean eta, besteak beste han ikasitakoagatik, berehala hasi nintzen lanean. Asko ikasi zuela dio: arduratsua eta autonomoagoa izaten ikasi nuen.*

Opusen eskolara joan aurretik elizkoa zen Illarramendi. Neskame sartu zenean ikusitakoak elizatik urrundu zuen. *Ordutik, elizarekin nituen harreman guztiak hautsi ditut. Handik ateratzeko, ordea, lotura horiek hausteko, traba ugari izan zituen. Ez zidaten ateratzen uzten, joan ezkeru bueltatuko ez nintzen beldurrez. Orduan harritzen hasi nintzen, eta, hain justu, hori egin nuen. Ama gaixo zegoela esan, gezurra bazen ere, eta Oriora etorri nintzen, ez itzultzeko, kontatu du Illarramendik. Bila etorri zitzaizkion handik gutxira, bueltatzeko eskatzen. Erregutu arren, ez zuten lortu Illarramendik etxekoen altzoa uztea. Orion gelditu zen, gaur arte.*



## GOITIK BEHERA ALDATU DIRA GARAIAK

**D**iruz pobreak asko ziren duela 50 urte inguru. Familia asko. Illarramenditarrak sei senide ziren eta eskolara joan aurretik zerrategira joaten ziren lan egitera. Gero, zaharrena, Maria, neskame joan zen. *Han gutaz aprobetxatzen zirela sentitu arren, ez nintzen horren gutxietsia sentitzen. Herrian gelditu zirenak eskabetxeriar joaten ziren hamabi urterekin-eta egiten zuten lan.*

Olariagaren ama ere eskabetxeriar joaten zen Eguberritan eta aitak bi edo hiru lan zituela aitortu du. Horrez gain, udan oheak alokatzen zituzten, dirua lortzeko. Gazte-gaztetatik guztiak egiten zuten lan lehen. Tolosak ere etxean egiten zuen lan, baserrian, neskame joan baino lehen, baita geroa ere.


*Gazte ginenean egoera bestelakoa zen. Eskola ere 14 urterekin bukatzen genuen. Garaia ezberdinak ziren, ez dago alderatzerik, dio Olariagak.*

*Nik uste dut mutur batetik bestera joan garela, dio Illarramendik eta gaineratzen du: uste dut ez gaudela ondo ez mutur batean eta ez bestean.*

Gaur egun ere astakeria ugari entzuten direla aitortu du Tolosak. Bera, behintzat, harrituta gelditzen da telebistan ematen diren albisteekin. Gerra bizitakoa bada ere, oraingoa ere ez dela batere sana dio.

Hirurei etxetik kanpo neskame lanetan bizitakoak eskarmentua eman zien. Ikasgai handia izan zen. Etxea dirdiratsu uzten abilak dira geroztik; baina, horrez gain, bizitzaren kontu txikiei dirdira ateratzen ere ikasi zuten.





## *Diplodus Vulgaris*, hiru kiloko arraina

**M**artxoaren 25ean Borja Egigurenek xuxar handia harrapatu zuen, *Diplodus Vulgaris* da izen zientifikoa. Harrapatutako arraiak 3.300 gramo pisatzen zuen eta Jaizkibelen arrantzatu zuen Egigurenek.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.


**Maider Arrillaga Sarasola** · 138. Kol. zenb.  
 Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
 Tel. 943 575 361

**oinarri**  
 PODOLOGIA ZENTROA

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta erremintak  
 fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



GEHIEN AXOLA ZAIZUNA BABESTEKO

HEMEN  
GAUDE

**Bulego berria**  
SANTI BARRANCO  
Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio  
Telf: 943 111 600 - 688 714 869  
sbarranco@segurosbilbao.com



# Bailara eraikiz

## **Urola Kostako Udal Elkarte**

Urdaneta bidea 6, Zarautz

## **Hainbat zerbitzu zuretzat: Iana bilatzen laguntzeko edo zure enpresa sortzen laguntzeko**

### **LANA BILATZEKO LAGUNTZA**

Lana bilatzen laguntzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Elkarrekin ibilbidea zehaztuko dugu eta konpetentzia pertsonal eta profesionalak landuko ditugu.

### **ENPLEGU ZENTROA**

Lana bilatzen laguntzeko leku bat da. Udal Elkartearen egoitzan dago, Zarautzen. Bertan dituzu: ordenagailu gela enpleguarenkin erlazionatutako gaiak kontsultatzeko, hainbat baliabide eta ikastaroak. Hori guztia orientatzaile baten laguntzarekin.

### **LAN-POLTSA**

Eman izena gure lan-poltsan. Lan bila bazabiltza, lan eskaintzak aurkituko dituzu; langileak hartu nahi badituzu, pertsonak bilatzen lagunduko dizugu.

#### **IKASTAROAK DOAN**

- Eskualdeko baliabideak
- CVa hobetu
- Autoezagutza
- ABLE - ETT -

Lan-eskaintzak, ikastaroak...


Jarrai gaitzazu  
Facebooken 



[enplegua-urolakosta.org](http://enplegua-urolakosta.org)

### **ZEHARKAKO KONPETENTZIAK**

Gaur egun enpresek gehien baloratzen dituzten profilak eta jarrerak ezagutu eta lantzen ditugu: proaktibitatea, komunikazioa, norbere buruarekiko konfiantza, taldean lan egiten jakitea.



### **HAZILAN**

20-35 urte eta goi mailako ikasketak dituztenentzat. Zure gaitasunak indartzeaz gain praktikak edo proiektuak



**EUROPA BILATZINA**  
Europako Batasuna Funtzeko zure etorkizunaren indartza da  
Lanaren Erakundeak  
El Fondo Social Europeo  
Finantza da zu zurekin

**Zure gaitasunak hobetu nahi batidutuz, etorri!**



## **SORTU ZURE ENPRESA**

### **1. INFORMAZIOA, AHOlkULARITZA ETA LAGUNTZA ENPRESA SORTZEKO**

Zure negozioa abian jartzea errazteko, ideia garatzen eta bideragarritasuna aztertzen lagunduko dizugu. Eskaintzen dizugu:

- Aholkularitza eta informazioa: sektorea, forma juridikoak, zerga eta lan arloa, baimenak...
- Bideragarritasun plana egiteko laguntza, simulatzailea erabiliz.
- Enpresa martxan jartzeko laguntza izapideetan –Foru Ogasuna, Gizarte Segurantzaren...–.
- Diru-laguntzak: egitasmoari ondoen egokitzen zaizkion diru-laguntzen informazioa.
- Finantzaketa iturririk egokiena bilatzeko laguntza.

### **2. PRESTAKUNTZA ETA TAILERRAK**

Urtean zehar hainbat tailer eta ikastaro egiten ditugu ondorengo gaiak lantzeko:

- Sustatzaile izateko beharrezko dituzun baliabide eta trebetasunak ezagutu eta landu.
- Zure negozio ideia garatzeko erremintak ezagutu: Canvas, Innobox, Elevator Pitch, Experience Economy...
- Enpresa kudeatzeko ezagutza eskuratu.

### **3. BALIABIDE ETA ESPAZIOAK**

Hainbat baliabide eta espazio ditugu zure negozio ideia aztertu eta lantzeko edo enpresa berria martxan jartzeko:

- Ekiten espazioa. Beste ekintzaileekin elkarlanean aritzeko.
- Enpresagune. Zure enpresaren bulego iraunkorra jartzeko.
- Gela eta ekitaldi aretoa. Egun edo saio batzuetarako alokatzeko.

### **4. 2015EKO DATUAK**

- 230 pertsonak jaso dute aholkularitza gure zerbitzuan.
- 45 negozio ideien bideragarritasun planak egin ditugu.
- 43 enpresa berri sortu dira gure laguntzarekin –58 lanpostu–

**Zeurea izan daiteke hurrena!**





## Egun osoko jaia hiru hamarkada ospatzeko

Hogeita hamar urte bete ditu aurten Danbolin Musika Eskolak, hogeita hamar urte Orioko musikariak trebatzen. Hamarkada horietan egindako ibilbidea ospatzeko egun osoko jaia egin zuten apirilaren 16an: Danbolinfest. Bezperan, ostiralean, kontzertua egin zuten Arraunetxen. Larunbatean kalera irten ziren ospatzera. Goizean goiz kalejiran irten ziren instrumentuko ikasleak eta, ondoren, emanaldia egin zuten musika mintzairako eta dantzako ikasleek. Elkarrekin plazan bazkaldu eta karaokea egin ondoren, erromeria batekin eman zioten amaiera ospakizun egunari.







**azku<sup>e</sup>**  
**karrozeria**



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

tel/fax: 943 89 00 69  
Bikaka kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA\_BEROGINTZA\_GASA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak konpromisoak jabe

**KOLON TXIKI**  
untaritegia  
jateokoa



Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)



kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

Ile apaindegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behe  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**Izarra Elektrogailuak**



berriro hemen!

**RENOVE PLANA**

**BEZaren %21a aurreztu**

21 hilabete interesik gabe

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 TIEN 21

**ARISTERRAZU**  
jatekxoa



Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

EKILORE  
GARBIKETAK



626417841  
ekilore@outlook.es

**HAIZE BERRI**  
taberna-jatekxoa-kafetegia

Plater konbinatuak,  
bokatak,  
hamburgerak,  
razoak,  
eguneko menua...

ostiraletan  
pintxo  
pote!!

eta etxera eramateko  
zerbitzua!

943 831 623

Orlako kiroidegian, Eribera 1

**ITZIAR**  
kirolak



Tel. 943 83 31 03

**KAIUA**  
taberna



TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, kaiuara  
bokata ederrak jatera

Anbarko portua 35, behea  
Tel: 943 840 060

**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra

**Harrespil**  
Hilerriz Zerbitzuak

**bai**  
ZARAUTZ

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



“Ikerklari gehienak emakumeak gara, zuzendaritza mailan kontrakoa gertatzen da”

**Arantza Muriana**

Biobideko I+G zuzendaria

Ikerkuntza eta Garapenean egiten du lan bioteknologia enpresa batean eta zuzendari edo profesional onenaren saria eman berri dio ASPEGI elkarteak.



ESTITXU ORTOLAIZ

**M. GARCIA**

Farmazian lizentziaduna da eta Ikerkuntza eta Garapenean masterra du. Ikerketa eta Garapen zuzendaria da berak, beste bazkide batekin, sortu duen enpresan eta profesional erreferente gisa saritu du ASPEGI Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarteak. Kontuan izateko ibilbidea du Arantza Murianak –Donostia, 1976–.

**Egiten duzun lanagatik saritu zaituzte. Zein da zure lana?**

Ikerketa eta garapeneko zuzendaria naiz enpresa bioteknologiko batean eta, horrez gain, enpresako sortzaileetako bat eta zuzendarikidea naiz. Enpresa farmazeutiko, kimiko edo kosmetikoek dituzten konposatuak aztertzen ditugu toxikotasun eta efikazia aldetik animalia alternatibo batean: zebra arraina.

**Zer berezitasun dute zebra arrainek?**

Normalean arratoiekin, saguekin, txakurrekin edo txerriekin egiten dira entsegu edo testak. Baina 10 edo 20 urteko entseguak izaten dira eta kostu oso handikoak. Arrain zebrak animalia mailako informazioa ematen dute, baina, enbrioiekin lan egiten dugunez –zelulen tamainakoak–, zelulekin erabiltzen diren ekipamendu eta teknikak aplikatu daitezke. Horrek, ikerketa erraztea, denborak murriztea eta kostuak txikitzea dakar.

**Ikerketan behar bezain beste inbertitzen dela uste al duzu?**

Ezetz uste dut. Egia da, duela 10 edo 15 urte, ikerkuntzaren alde apustu handia egin zela Euskal Herrian, batez ere bioteknologian. Laguntza handiak eman ziren eta enpresa berri asko sortu ziren, tartean gurea. Baina krisiak guri ere eragin digu eta, alde guztietan gertatu den bezala,

“Badaude ikertzaileentzako laguntzak, baina gutxi dira eta gehienak entitate publikoetarako dira, ez enpresa pribaturako”





ESTITXU ORTOLAIZ

ikerkuntzan ere murrizketak egon dira. Eta, ikerketa egiten duten enpresa txikiek babes behar dute, ez soilik hasieran. Bost urte baino gehiago eustea zaila da enpresentzat.

Gure kasuan, hala ere, ez dugu inbertsio falta hori hainbeste nabaritzen. Ez gara laguntzez bizi, multinazional handiak dira gure bezeroak. Gure analisiak oso berritzaileak dira eta beti gaude teknologia berriak aplikatzen. Horregatik, enpresa handiek Biotek enpresa txikiak kontratatzen dituzte, berak ezin baitute denean inbertitu.

#### **Ikertzaile askok kanpora joan behar izaten dute?**

Euskal Herrian ikerketan lanean gauden gehienak enpresa txikiak gara, eta lehen esandakoak itxi zirenean jende askok atzerrira joan behar izan zuen ikerkuntzan lan egiten jarraitzeko.

Badaude ikertzaileentzako laguntzak, baina gutxi dira eta gehienak entitate publikoetarako dira, ez enpresa pribaturako. Guk, beraz, ezin ditugu laguntza horiek eskatu ikerlariak kontratatzeko.

#### **Zuzendari/profesional onenari saria eman dizu ASPEGI.**

Ez nuen espero, inondik inora. Bizkaian eta Araban urteak daramatzate sari hauek ematen eta lehen aldia da Gipuzkoan ematen dituztela. Hunkigarria izan da niretzat; gainera, nirekin batera saritu duten emakumeak sekulako ibilbide profesionala du nire aldean.

#### **Emakume enpresarien ikusgarritasuna eta**

#### **errekonozimendurako egiten du lan ASPEGI elkarteak.**

#### **Beren lana beharrezkoa dela uste al duzu?**

Ez luke hala izan behar, baina oraindik parekidetasuna ez da

iritsi arlo askotara. ASPEGIren ideia, sariak ematerakoan, erreferenteak ematea da. Ikasleek, karrera hasten ari diren emakumeek ikustea badirela ibilbide bat duten emakumeak eta berak ere hori egin dezaketeela. Ez dezatela pentsatu aukerarik ez dutenik.

#### **Emakume eta enpresari bezala, zein da zure esperientzia?**

Gure bezeroen zati handiena atzerrian dago, beraz, asko bidaiatzen dut lanagatik. Hori familiarekin uztartzeko esfortzu handia egin behar da. Nik bi alaba ditut eta eguneroko bizitzan parte hartzen dut. Bestalde, etxekoen babes dut egin dugun apustu honetarako eta horrek asko errazten dizkit gauzak.

#### **Etzetik kanpo, lan munduan, nabaritzen al dituzu desberdintasunak?**

Ikerkuntza mailan emakumeak gara gehiengoa, baina, zuzendaritza mailan kontrakoa gertatzen da. Enpresatako kontseilueta gehienak gizonezkoak dira, gure enpresan bertan, adibidez, emakumezkoak baino gizonezko bat gehiago dago kontseiluan..

#### **Zeintzuk dira zure erreferenteak?**

Txikitatik ikerlaria izan nahi nuen eta Marie Curie izan zen eredu bat niretzat, Nobel saria jaso zuen lehen emakumea izan zelako. Bioteknologia arloan Cristina Garmendia, zientzia ministroa izan zena ere eredu izan da niretzako. Baina erreferente nagusiak etxean izan ditut: gurasoak. Lan handia egin dute beti eta, berek erakutsi zidaten lan eginaz lortzen direla gauzak, eta hori da nire alabei transmititzen didana.



Iñaki Gurrutxaga

## Bala galdu bat Tokion

**Konturatzera, Bi Bala aireportuko arkutik arazo handiegirik gabe pasa eta han geunden, Hanedako aireportuan, maletak eta musika-tresnak eskuan**

einek esan behar ote zigun guri, 2013ko urtarrilean Kursaalera lotsak etxean utzita azaldu ginenoi, urte batzuk pasata munduaren beste aldean eta gure bertsoak motxilan hartuta bukatu behar genuenik? Ba bai. Non eta Tokion. Harrapazank.

Lehengo udaran egin genuen lehen apustua, gure bertso-musikatuak hitzez defendatu ezin genituen lekuetara salto eginda. Alemaniara joan ginen, Berlinen eta Munichen kontzertu pare bat ematera. Tranpa txikia eginda, dena esaten hasita, bertako euskal-etxeetan atea jota joan baikinen.

Alemanian bai, baina entzule euskaldun dezente. Gero Pelotari kaleko mezikitakoei begiratuko diegu, baina ederrak gara ba gu kanpora joandakoan gure santuario txikiak osatzerako garaian.

Baina moldatuko ote ginateke tranparik gabe? Horixe pentsatuz itzuli ginen handik. Sintonia berean aritzeko, gure bertsolari-senak galga handia jarri digu, orain arte. Ez baikara gu komunikazio ez-berbalari oso emanak. Pello eta Nikolasa bezalakoak garela, alegia: gehienezan *kietoparau*.

Ez zen denbora asko pasa ordea, kasualitate asko elkarrekin korapilatuta, Japoniara joateko aukera sortu zitzaigunerako. Konturatzera, Bi Bala aireportuko arkutik arazo handiegirik gabe pasa eta han geunden, Hanedako aireportuan, maletak eta musika-tresnak eskuan.

Astebete pasatxo egin dugu Tokio inguruan. Kawasaki hiriko Shukugawara auzoan oinarritzko kanpamentua jarrita, Tokioko hainbat areto eta tabernatan jo dugu. Japoniarren aurrean.

Jende kurioa japoniarrak. Errespetuaren kultura hezurretaraino sartua dutenak: isiltasuna, garbitasuna, ondokoari enbarazurik ez egitea. Tira, hori, edan tantokin poztuta jartzen diren arte: kontzertu bukaeraro etorri zaigu bertakoren bat, muturra berotuta, zein *marabilosoak* garen esatera, behin eta berriz. Traturako zailtasunak dituzte egunerokoan, eta *itxaferoa* botatzen dutenean, biba sanfermin! Gainontzean jende abegikorra, prestua eta jatorra. Gu bezalakoak, txar guztia kenduta, oso onak.

Bizipen ahaztezinez errekamara ondo kargatuta itzuli gara Euskal Herrira. Sintonia berean hitz egiteko, hizkuntza ez dela traba ikasi dugu, behintzat.

75 m<sup>2</sup>ko **PISUA SALGAI**

Alan, Santio Errekan kokatua

Prezioa: 165.000 euro

☎ 607 510 356



Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela. Horrez gain, komunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-

fotorosanaarruti@gmail.com  
telf: 943 83 58 45

# Aholkuak salgai



Zigor Esoain

**Jokaera isekatik gero eta gertuago daukatenak izan ohi dira besteez gaizki esaka aritzen direnak. Besteen gaitzak seinalatzen dituzte beren gabeziak tapatzeko.**

**B**adira ondo geratzen diren hitzak edo espresioak, esaldia janzten dutenak. Eta horregatik, erabilpen oparoa izan ohi dute, sarri zentzua galtzeraino, itxuragabetasuneraino. Berdintasuna izan daiteke kasuetako bat. Sarri erabiltzen dugu hitz hau parekidetasunaren aldarria egin nahi dugunean, nahiz eta bata eta bestearen esanahia ezberdina izan. Hau da kondena hitzari gertatzen zaiona ere. Definizioari erreparatuz gero, epaile batek edo auzitegi batek ezartzen duen zigorra da kondena. Beraz, eskumena eduki behar da kondenatzeko, zigortzeko, hutsa edo gaizkia egin duena gaztigitzeko. Zenbat aldiz entzun dugu azken aldiaren ehun pezetako hitz hau batere eskumenik ez duenaren ahotan.

Kondenaz gain, errelatoa, memoria, biktimak eta antzerakoak ahoz aho dabiltzan garaietan bizi gara. Euskal gizartearen zati bati, sektore bati, egindako minaren aitortza exijitzen zaion garaietan, hain justu ere. Baina, nork eskatu dizkio kontuak Iñigo Cabacas hil zuten egunean baliabide guztiekin sartzea agindu zuen ertzainari? Inork. Zinismoa

eta hipokrisia.

Hipokrisia gaitz guztien paradoxa omen da, Iñigo Cabacasen kasuan gertatu den zerbait dela esan dezakegu. Beren lotsak tapatzeko begiak, sudurra eta ahoa isten duten politikariak. Demokrata txartela harro erakusten duten bitartean, ze zekenak diren erakusten dute soilik. Beren zikoizkeria azalera dute soilik beste era batera esanda.

Inoiz ezingo diote Iñigoren familiari eta lagunei begietara begiratu ertzain eta politikari horietako askok. Inoiz ezingo dute begirada garbia eduki beren aurrean, jakin badakitelako, sakon-sakonean, beren jarrera ez zela berdina izango beren lagun edo familiarrekoren batez ariko bagina.

Jokaera isekatik gero eta gertuago daukatenak izan ohi dira besteez gaizki esaka aritzen direnak. Besteen gaitzak seinalatzen dituzte beren gabeziak tapatzeko. Halaxe da bai, beste aldera begiratzen duten jende bera da iraganaren kondena eta erantzukizuna eskatzen dutenak, Iñigoren kasuan ere.

Ardi larruzko otsoak. Beti dute aholku bat salgai, baina berentzat ez dute aholkurik nahi.





# Erreplika



Oliden eta Agote, Itxas Tresna baten erreplikarekin. I. GAITON

## Kritika Erreplika

**Dokumental laburra**, Iñigo Gaitonek zuzendua. 14. minutu. Laburbira zirkuituan parte hartu du.

Oriotarrak eta surf-taula egileak biak. Lehenengoetakoa izan zen Patxi estatu mailan, 60ko hamarkada amaieran, eta Europako onenetakoa da Mikel gaur egun. Itxas Tresna zahar baten erreplika egiten jarri ditu beste oriotar batek.

*Patxi Olidenek Itxas Tresnak iten zitun tailerren gañen bizi nitzan txikitan.* Hala hasten da Mikel. Eusko Gudarien Kaleko tailerlean gaude, gitarra doinu lasai eta xume batek lagunduta, eta dagoeneko badakigu samur kontatuko digula egileak istorioa, esku artean duenari xarma eta zaporea atera nahian.

Patrick Trefz zinegile eta argazkilaria Kalifornian argitaratu zituen Patxiaren argazkiak erakusten. Joxemari Zaldua, 1971ean Orion, Itxas Tresna batekin surf egiten. Andoni Fernandez oriotarra eta Twiggy Baker hegoafrikarra Mikelen taulekin olatu erraldoiak hartzen. Politena, noski, Patxi eta Mikel elkarrekin tailerlean. Errespetua ez ezik, konplizitatea ere sumatzen da haien artean. Irribarretxoia pizten digute, eta hunkitu ere egingo gaituzte unereren batean.

Hedabide nagusietako surf-mengel, ezti merketik urrun, oso bestelako ikuspegia eskaintzen digu Iñigo Gaitonek. Oriok badu gatza surf-munduari emateko.

IÑIGO FERNANDEZ OSTOLAZA

**Portu ERRETEGIA**  
Santio Erreka Auzoa, 2/g  
943 89 44 04  
20809 AIA-ORIO

*krakak lasento oihetan  
murrak erobirik ezin da inon*

**AIRIDATZA modas**  
Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*juletegia*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**ITZALA**  
*kartetan jokatzeko  
aproposki*

tel. 943 83 12 59

# Zer leku dute munduko emakumeek gure herrian?



Anuska Esnal

**M**unduaren zatitxo batzuetan, neskatilek, bizimodu hobego bat izatea desiratzen dute, eta nahia errealitate bihurtzeko, seme alabak, sendia eta etxea uzten dituzte bidai amaigabe bat abiaraziz.

Gurera iritsita, ametsak kalbario bihurtzen dira eta emakume etorkinek bazterketa bikoitza sufritzen dute; bata emakume izateagatik eta bestea etorkin izateagatik. Emakume etorkinen etorrera asko igo da azken urte hauetan, kapitalista, patriarkala eta arrazista den gizarte honek emakumearentzat inposatzen dituen lan kargak handitu egin direlako, duintasun minimoetara iristen ez diren lanpostuak sortuz.

**“Munduaren zatitxo batzuetan, neskatilek, bizimodu hobego bat izatea desiratzen dute”**

Emakume etorkinak gehien bat lege bidez iristen dira gurera, lan baimenak edota famili biltzea argudio hartuta, baina ondoren, legezko administrazio egoera lortzeko, gizonezkoek baino arazo gehiago izaten dituzte.

Etorkin orok hiru gatazka nagusi sufritzen ditu; bere herria galtzea, arrotza zaion hizkuntza batekin topo egitea eta kode sozial berrieekin aurkitzea, non sarritan, berak dakartzanekin talka egiten duten. Eta errealitate horretan beren identitatea eraiki behar dute. Posible al da testuinguru horretan nortasun bat sortzea? Nola sortu uneoro mendeko dauden testuinguru horietan erlazio sozialak?

Eider, munduaren zatitxo honetan, aldiz, neskatilek, argalak eta ile luzedunak izatea amesten dituen. Hau al dinagu urteetako emakumeon borrokaren ondare? Balore horiek transmititu al dizkinagu? Nola ikusten dun?



Eider Goiburu

**A**razoi dun Anuska! Gure jendarteko neska askok argal eta ile luzea izatearekin amesten dituen, baina ez dinat pentsatu nahi hau borroka feministaren ondarea denik, patriarkatuaren estrategia sotil eta eraginkor bat baizik, gu espazio sozio-politikoetatik atera eta boterea gizon batzuen eskuetan jarrai dezan.


Nik ere eman zizkionat buelta batzuk inkoherentzia honi, batez ere, emakume etorkinekin egoteko aukera izan dinatenean eta hauek beren bizi esperientziak kontatu dizkidatenean; jasaten zuten indarkeria matxistari ihes egiteagatik etortzea erabaki izana, beren familia eta ingurukoei bizitza hobetzeko aukera ikusi izana, lesbianak izan eta beren bizitza

**“Kalbario guztia pasa ondoren gure herrira iristen dira, bidaiak mereziko zuelako esperantzarekin”**

askatasunean bizi nahi izateagatik migratu izana edo mundua ezagutzeko gogoz abiatu izana. Beren bidaiak ere kontatu dizkirate batzuk, zailtasunez gainezka beti eta indarkeria jasaten batzuetan. Eta azkenik, kalbario guztia pasa ondoren gure herrira iristen dira, bideak mereziko zuenaren esperantzarekin. Baina hemen, hik dion bezala, gure gizarte kapitalista, patriarkal eta arrazistarekin topo egiten dituen.

Eskerrak emakumeok antolatzeke gaitasuna dugun! Atzo bertan harrituta gelditu nindunan, Gipuzkoako emakume etorkinen elkarte batek, egoera larrian dauden emakume etorkinentzat, larrialdiko pisu autogestionatu bat martxan dutela jakitean. Emakumeen arteko babes eta laguntza eredu bikaina!

Hau da jarraitu beharreko eredu, gure arteko sareak indartu eta gizarte honetako baloreak eraldatuz!



Esteban eta Migel: plater-tiroketan eta atletismoan Oriok emandako bi kirolari handi.

# Esteban Azkue eta Migel Illarramendi

**Oroimenaren kutxa**

**G**ure artean orain kirol mota asko praktikatzen da: saskibaloia, eskubaloia, bizikleta, judoa, mendia, padel, sofbol, dardoak, surf, parapentea, triatloia... Baina horien aldean, zalantzarik gabe, arrauna, futbola eta pilota izan dira Orion indartsuenak, jende gehien ibili dutenak, nahiz pilota asko jaitsi den azken urteotan, futbolaren mesede.

Badira beste bi kirol, garai batean dexenteko indarra hartu zutenak Orion: plater-tiroketa eta atletismoa. Gaur egun ia desagertuta daude. Biek ere oso maila handiko kirolariak eman zituzten Orion orain urte batzuk. Esteban Azkue Larrañaga eta Migel Illarramendi Rezola dira gehien nabarmendu zirenak.

Esteban Azkue Aia-Orion jaio zen 1944ko otsailaren 24an. Plater- eta usakume-tiroketa izan du kirol kuttuna bere denboraguztitan. Garaipen-zerrenda izugarria osatzera iritsi zen Azkue. 1974an Europako txapelketa irabazi zuen bi modalitatetan: foso olinpikoa, Frantziako Antibes-en; eta foso unibertsala, Italiako San Marinon. 1975ean, Espainiako Kopa, foso olinpikoa, orduan indarrean zegoen errekorra berdinduz: 200 plater posibletik 199 botata. 1976an, Montrealeko Olinpiadan izan zen, 11. egin zuen. Hurrengo urtean, 1977an, munduko txapelketan gailendu zen Antibesen, eta taldeka bigarren geratu ziren. Goia 1978an jo zuen: izen handiko 16 lehiaketa irabazi zituen European, eta munduko errekorra gainditu: 500 plateretik 490 botata; munduko txapelketan nagusitu zen, foso unibertsaleko modalitatean, Belgikako Zutendaalen, eta munduko marka jarri: 300 plateretik 285 botata.

Estebanen aparteko maila horrek eraginda edo, Orion herriko festetan-eta, hainbat urtez, plater-tiroketa saio

jendetsuak izaten ziren palotetan, eta herriko tirolari askok parte hartzen zuten, bai plater- bai usakume-tiroketan.

Migel Illarramendi 1941ekoa da. Atletismoa praktikatu zuen, bereziki pertika-jauzia. Entrenamenduak Orioko Dikeko soro batean egiten zituen, banbuzko kanaberekin, arrantzaleei hartuta. Orioko plazan, festetan, 4,50eko saltoa egin zuen, eta herritar guztiak aho zabalik utzi. Plazako salto haietan, erortzerako kolpea arintzeko, hondarra jartzen zuten lurrean, plaiatik gurditan ekarrita.

1958an, jubeniletan, Espainiako txapelduna izan zen pertikan, eta hirugarren, jabalina jaurtitzan. Podiumean izan zen bi modalitatetan. 1965ean jokatu zen lehen aldiz Espainiako atletismo txapelketa indoor, Madrilgo Kirol Jauregi orduan berrian. Illarramendi, Real Sociedad klubeko atleta eta Gipuzkoako txapelduna zela, hirugarren geratu zen, 4,20 metroko saltoa eginda; brontzeko domina eskuratu zuen, Ignacio Sola olinpikoa eta Miguel Consegalen atzetik. Hainbat ediziotan geratu zen bigarren eta hirugarren. Inoizko saltorik handiena 4,70ekoa egin zuen.

Garai hartan Orion atletismorako zaletasun handia zen. Migelekin batera, beste asko ere ibili ziren, orain mende erdi inguru, atletismoko probetan: Jose Mari Alberdi, Jose Migel Loidi, Benito Lertxundi, Marivi Tarantino, Mirentxu, Arantxa eta Antonio Campos anai-arrebak, Jose Migel Leunda, Josekutx Exposito...

Gaur egun biak ere, Esteban eta Migel, Orion bizi dira. Migelek eusten dio kirola egiteari, golfean aritzen da. Esteban azken urteotan saiatu da behin baino gehiagotan Orion tiro-lehiaketa bat antolatzen, oraingoz lortu gabe.

**IÑAKI ITURAIN**



## LARDIZABAL HERRI ESKOLA

## Aiako XI. argazki lehiaketa



Aian, XI. Argazki lehiaketa martxan da dagoeneko. Gaia natura da eta Aiako tokiak izan behar dute. Lehiaketan edonork parte hartu dezake eta bakoitzak, gehienez, 4 argazki aurkeztu ditzake. Argazki bakoitza gutunazal batean sartuko da parte-hartzailearen datuekin. Irailaren 29rako aurkeztu beharko dira Aiako kultur etxean. 3 sari egongo dira erroldatuentzako eta beste hiru erroldaturik ez daudenentzako. Animatu parte hartzera!

## ORIOKO HERRI IKASTOLA

## Txitoak txioka!



HH3ko haurrek Oiloaren proiektua aukeratu dugu. Asko ikasi dugu: zenbat oilo mota dagoen, zer jaten duten, zein ezaugarri dituzten... Nola jaioko ziren jakinmina genuenez txitagailua ekarri genuen. Ondoren umeek ekarritako arrautzak txitagailuan sartu eta 21 egun eduki genituen, baina 20garrenerako txito batzuk txioka genituen. Ondorengoak 21. egunean jaio ziren. A ze festa, umeak pozik baina irakasleak, gurasoak eta bisitariak gehiago!

## ZARAGUETA HERRI ESKOLA

## Jolastokia garbi mantentzea denon ardura da



2. ziklokoek ardura berri bat dugu, patioa garbi mantentzea. LH4koak hasi gara. Lauko taldetan, astero talde bakoitzak du patioa txukun izatearen ardura. Jolas-garaia bukatu ondoren txaleko eta eskularruak jantzi eta prest! Aurkitzen dugun zaborra jaso, eta dagokion ontzira botatzen dugu. Gelatara joan gara informazioa ematera eta ohartaraztera denon ardura dela patioa garbi izatea. Oso gustura ibili gara, orain LH3koen txanda da.



Jon Markez

## Balearen Eguna

**B**alearen Eguna oriotarrentzat oso egun berezia dela esango nuke, egun horretan herri-festa handi bat ospatzen baita 1901ean Bizkaiko golkoko azken balea harrapatu zutela gogora ekartzeko.

Nik iritzi kontrajarriak ditut gaiaren inguruan.

Alde batetik, arraroa egiten zait hori ospatzea, alegia, gure kostaldeko azken zetazeoa akabatu zutela ospatzea. Beste era batera esanda, ez dut gustuko animaliak hiltzea, ez zait bidezkoa iruditzen, are gutxiago desagertzeaz badaude.

Bestalde, ez dago ukatzerik gure herriko arrantzale haiek ausardia handia erakutsi zutela lurreko izaki handienaren atzetik abiatu zirenean euren txalupetan. Gainera, adituek diotenez, Europako beste nazio batzuek euskaldunengandik ikasi zuten balea nola arrantzatu.

Hau guztia dela eta, polita iruditzen zait haien omenez festa hau antolatzea. Orion, zorionez, jende guztiak hartzen dugu parte, berdin du zaharra ala gaztea izan. Egun horretan herri osoa antzoki bihurtzen da, eta oriotarro 1901eko giroa eta gertaerak antzeztan ditugu, festa-giro alaian. Aurten dena ondo ateratzea eta gauza txarrik ez gertatzea espero dut.

**Arraroa egiten zait gure kostaldeko azken zetazeoa akabatu zutela ospatzea**

# Bata ala bestea: birziklapena ala errausketa?



Errauste planta eraikitzeko egokitutako lur eremua, Zubietan. DANI BLANCO

Bor-borka dago errausketaren gaia azken boladan eta aspaldidanik bero-bero birziklapenaren eztabaida. Bi gai horiek udalaren txokoko eltzean sartu dituzte hilabete honetan.

## Hainbat arau kontuan hartzeko

Iaztik kaleko edukiontzien bidez jasotako hondakinak hilezhil aztertzen ditu Urola Kostako mankomunitateak.

Gaika egiten dute neurketa. 2015ean errefusaren 1.365.150 kilo jaso ziren. Kopururik handiena abuztuan jaso zen, 133.200 kilo. Beiraren 214.242 kilo jaso ziren iaz, papera eta kartoiaren 296.888 kilo bildu ziren, ontzi arinen 126.816 kilo batu ziren eta material organikoaren 297.482 kilo. Guztira 2.300.578 kilo bildu ziren pasa den urtean, 2015ean.

Zabor gehien uda sasoiari biltzen da. Errefusa, abuztuan. Beira, ekainean; ontzi arinak, abuztuan; papera eta kartoi irailean; organikoa uztailean.

## Eskualdean gutxien, Aian

Eskualdeko beste udalerriekin alderatuta, Orio ez da kilo gehien birziklatu den herria. Gai guztietan, Getarian birziklatu da gehien; eta, gutxien, Aian. Aiaren atzetik Zumaia eta Orio nahiko parekatuta daude kilo kopurutan.

## Errauskailua etxetik gertu

2015 urtearen bukaeran, Gipuzkoako Foru Aldundiak, EAJren gidaritzapean, berriro egin zuen hondakinak kudeatzeko planaren barruan Zubietan errauste planta bat jartzeko egitasmoa.

Errauste plantak izango duen kalte eremua marrastuz gero, Orio mugen barruan geldituko litzake, baita Aia ere. Urola Kosta guztia hartuko luke errauskailuaren eragin-eremuak, epizentrotik 5-10 kilometroko radioan kokatzen baita eskualdea. Horrek alarma piztu du eta errauskailuaren

kontrako martxak antolatu dira, salatzeke.

## Errausketak eragina osasunean

Zubietako erraustegiak osasun arazoak ekarriko dituela ziur dute OEITko, Osasun eta Erraustegia Ikerketa Taldeko-medikuek agerikotzat eta frogatutzat jo dute hori. Eta, horregatik, medikuek agintariekin elkartu nahi dute, Zubietako proiektuak dakarren osasun arriskuaz ohartarazteko eta zuhurtzia printzipioa ezartzeko eskatzeko.

## Zementu fabrikaren ere erretzen da

Zubietako errauste plantaren kutsadura, gainera, gehituko litzaioke dagoneko hondakin industrialak erretzen dituen Añorgako zementu fabrikarenari.

Fabrikaren eragin-eremuan ere Orio eta Aia kokatzen dira. Bi proiektuek kaltetuko dituzte oriotarrak.



EAJ

### Birziklatu ala erraustu?

Zergatik aukeratu behar da bat ala beste? Orain arte gure taldeak biak garatu beharreko bideak direla defenditu izan du. Materiaren eraldaketaren Legeak dioenarekin bat gatoz: *materia ez da ez sortzen ezta desegiten, eraldatu egiten da*. Ildo beretik, hondakinen inguruko Europako Zuzentzarauak, kudeaketaren hierarkia bat ezartzen du: prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena, balorizazioa -balorizazio energetikoa barne-, eta azkena, isurtzea. Gipuzkoan hierarkia hau betetzen duen araudia badugu: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala -edo PIGRUG-. Plangintza hau EAJk bultzatutako plangintza da eta bertan jasotzen da berrerabili, birziklatu edo konpostatu ezin daitezken hondakinak balorizazio energetikora bideratuko direla. Errefusa deritzogun horri eman diezaiokegun irtenbide okerrena, ingurumenaren ikuspuntu batetik, zaborteziarena da.



### Orain

#### Zero iniziatiba

Erraustegiari buruz Zero Zabor taldeak erabiltzen duen esaldi adierazgarria: *burua ondo daukanak ez du bere etxe ondoan nahi, bihotz ona daukanak besteen etxe ondoan ere ez du nahi*. Antzerako burutapena egin daiteke birziklatzearen gainean, jakinda baliabide materialak urriak eta neurtuak ditugula ezin da pentsatu neurri gabeko kontsumismoan bizitzea eta izugarritzko hondakin kantitatea sortzea guztiona den lurrari kalte egin gabe. Une honetan, 2016ko apirila, Orioko Udal Gobernu Zero Iniziatiban edo gutxiagoan kokatua dago -ia urte erdi udaletxeko balkoiko panela *desagertua* egon dela, berriro jarri denetik ez da ehuneko eguneratu, etab.-. Birziklatzeari beste bultzada bat eman behar zaio eta Orain taldea prest dago horretarako jakinda politizatuta dagoen heinean zaila izango dela benetan denok batera bultzatzea.



### EH Bildu

#### Osasuna eta ingurumenaren alde

EHBilduk beti egin du birziklapenaren apostua. Orain arte, nola birziklatu eztabaidapean, herritarren iritzia ezinbestekoa dela esan da, hori gabe ezerk balio ez duela esanez. Argi dago, gutxiago sortu behar dugula, ahal duguna berrerabili eta azken pausoan soberan gelditzen den hori birziklatu. Aurreko legealdian EHBilduk %80ko birziklapen maila jarri zuen helburu baina ez dirudi gainontzeko alderdiak eredu horrekin ados daudenik. Hori gauzatzeko erabaki irmorik ez dute hartu nahi behintzat. Errazagoa omen da, hondakin guztiei irteera berdina ematea, erretzea. Errauskailuak kontaminatu egiten du, osasunarentzat erabat kaltegarria da eta Gipuzkoar guztiok ordaindu beharko dugu, unilateralki EAJ-PSEk erabaki eta diseinatutako makro proiektua. Zenbat kostatuko zaio oriotar bakoitzari? Zein ondorio izango ditu errauskailu ondoan bizitzeak? Non gelditu da herritarren ezinbesteko iritzia?



### PSE-EE

#### Birziklatu

Aukera onena sortzen dugun zaborraren %100 birziklatzea litzake, baina hori, gaur egun, ez da posible. Birziklatzen ez den zaborrarekin zer egin, hori da arazoa. Errausketa aukera bat da, baina, aurrerapen teknologikoei esker kutsatzen ez duela esaten diguten arren, errealitatea bestelakoa da. Aurreko legealdian eztabaida eta gatazka handiak sortu zituen zaborraren gaiak, eta ez zen guztiak asetuko zituen konponbiderik aurkitu. Birziklapenaren alde egin eta gizartea hezi behar dela uste dugu, baina hori ez da egun batetik bestera lortzen. Denborak eta informazio programa onek lortuko dute birziklapen tasa handitzea. Bitartean, birziklatzen ez den zaborrari irtenbidea eman behar zaio; batzuek errauskailuaren alde egiten dute, beste batzuek kontra. Bi jarreraren arteko konponbidea bilatzea litzake egokiena.





## Gizartea Bizirauten, boluntario sarearen laguntzari esker

Esperientziaren Eskola bizirauten ari da, hala moduz. Ekonomikoki ez dago egoera oso onean, baina boluntario sareari esker aurtengo ikasturtea egitea lortu dute. Debalde laguntza eman dieten horiei eskerrak eman nahi izan dizkiete eskolako kideek. *Oso eskertuak gaude, berengatik ez balitz ez ginatke honaino iritsiko*, aitortu du taldeko zaharrenak. Esperientzia Eskolara joateak bizirik mantentzen ditu. Eta, ondorioz, eskolak bizirik jarraitzea espero dute.

@karkara.eus/orio/1461682149034



## Hezkuntza Txurrumuski udarako prest




Uda Txokoa, Udaleku Irekiak eta Gazte Abenturak antolatu ditu uda honetarako Txurrumuskik. Ekintza horietan izena emateko egunak maiatzaren 18a eta 19a izango dira, Orioko kultur etxean, arratsaldeko 17:30tatik 19:00tara. Txurrumuskik Euskadiko Kutxan duen kontu korronteko zenbakian 85 euroko diru sarrera egin behar da eta ziurtagiria izena emate orriarekin eta osasun txartelarekin batera aurkeztu behar da. Datak errespetatzea ezinbestekoa izango da.

@karkara.eus/orio/1461685024922

## HILA IRUDITAN



## HASI TXIOKA





## Politika

### Hautsak harrotu ditu ez-ohiko bilkuran Amezteren kasuak

Legeak gai bakarrarekin ez-ohiko mozioak egitea ahalbidetzen du. Beste gairik ez badago, mozioa heldu eta hori eztabaidatzea. Aian, mozio horri lotutako beste mozio alternatibo bat aurkezteko aukera dago. Eta, hori bozkatzen da lehendabizi, alternatiboa. Eta, arauaren arabera, batak bestea ezeztatzen du. Hortaz, mozio alternatiboa onartuz gero, bestea indargabetu egiten da. Hori gertatu zen Aian Amezteren inguruan EH Bilduk aurkeztutako mozioarekin. EAJren mozio alternatiboa onartu zen, gehiengoarekin.

@karkara.eus/orio/1460724987576



## Kultura

### Etorkizuneko idazleak saritu dituzte literatur lehiaketan

Eskolaumeen Literatur Lehiaketako sari banaketa izan zen apirilaren 23an, eguerdiko 13:00etan. Ekitaldian parte hartu zuten lau alderdietako ordezkariak eta Jabi Zabaleta udal teknikariak. LH3tik DBH4ra bitarteko ikasleen artean ipuin eta poesia onenak saritu dituzte, baita marrazki politenak ere. Aurtengo lan sarituen liburua kultur etxean eta udaletxean eskura daiteke, doan. 100 orrialde inguruko liburu bat da eta, guztira, Orioko haurrek egindako 60 bat lan biltzen ditu. Liburuaren hitzaurrea Aitziber Campos zinegotziak idatzi du.

@karkara.eus/orio/1461559417895

### Ingurumena

#### Asentzio feriarako deialdia

Apirilaren 22an, Asentzio Feria egingo da Aian. Urtero bezala, bertako baserritar eta ekoizleei parte-hartzeko gonbita egiten die udalak. Animaliak eraman nahi dituenak, apirilaren 11 baino lehen izena eman beharko du Aiako Udalean.

### Gizartea

#### Donejakueko itsas bidea Oriotik

Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskadiko hainbat kirol portuk hitzarmena sinatu dute Konpostelako artxidiozesiarekin itsas erromesaldia arautzeko. Euskal kostan 7 dira zigilua jartzeko portuak.

### Gizartea

#### Emakunde saria Hitzezentzat

Emakunde saria eman zioten Hitze elkarteari apirilaren 26an. Emakume baserritarrek eta landa eremuko emakumeek egiten duten lana aitortu nahi dute, emakumeak ezinbestekoak baitira landa eremuak bizirik izateko.

### Gizartea

#### Danborradako izen ematea

Balea Elkarteko kideek afaria antolatu dute maiatzaren 13n. Afalostean danborrada izango da. Bazkide bakoitzak nahi adina lagun eraman ditzake, nola afaltzera, hala danborradara.

### Gizartea

#### Madariaga absolbitu dute

2015ean Kukutzako istiluengatik zigortu zituzten 19 gazteetatik 18 absolbitu ditu Bizkaiko Auzitegiak, horien artean Aratz Madariaga oriotarra. Zigor-arloko epaitegiaren sententzia manifestazio eskubidearen aurkakoa zela dio epaiak.

### Gizartea

#### Harora irteera Babeslekutik

Maiatzaren 17an Oriotik Harora joan dira. Ochavo erretegiaren bazkalduko dute. Txartelak maiatzaren 10ean salduko dira Babeslekuan, 16:00etan. Prezioa 35 eurokoa da.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.

**Salgai**

■ Intxaurrek: Tamaina oneko Aiako intxaurrek. 3k 14€. 4k 18€. 5k 20€. Pati deitu urtarillaren 28tik aurrera: 94313 21 31 edo 634 424 887  
 ■ Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautz. 656772428

**Alokairuan**

■ Garajea alokagai Aita Lertxundi 21en. 679 691 654  
 ■ Pisua alokatu nahi dut urte osorako. Bi logelakoa- 607789644

-Izaskun-.

■ Pisua alokatu nahi dut udarako, uztaila edo abuztua. 636684891  
 -Juan Carlos-.

**Elkarbanatzeko**

■ Lanerako bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. 656309237 -Imanol-.

**Lan eskaintza**

■ Aiako jatetxe baterako zerbitzari euskaldun

baten bila gabilta, barra nahiz jangelarako. Asteburu eta ospakizunetarako. Interesatuek deitu: 943834322

■ Ingelesarekin lagunduko nauen pertsona baten bila nabil. Goizetan, 8:30tatik 11:00etara. 669781963

**Erosteke**

■ Trastero edo bodega bat erosi nahi dut Orio erdigunean. 663028365 -Lore-.

**AGENDA**

**Orio**

**Emanaldiak**

■ Maiatzaren 5ean, Tomax pailazoaren *Txipli-txapla* ikuskizuna, kultur etxean, 17:00etan.  
 ■ Maiatzaren 7an, Benitor Lertxundiren kontzertua, Karelana, 22:00etan.  
 ■ Maiatzaren 12an, Salatxo eta Eresagi abesbatzak, elizan, 20:15ean.

**Hitzaldiak eta solasaldiak**

■ Maiatzaren 11n, hitzaldia Mutiozabal ontziolari buruz, kultur etxean, 19:00etan.  
 ■ Maiatzaren 12an, *Euskal baleazaleen triskantza* dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia, kultur etxean, 18:00etan.  
 ■ Maiatzaren 13an, *Zurezko ontzigintza belaunaldiz belaunaldi* hitzaldia, kultur etxean, 19:00etan.  
 ■ Maiatzaren 22an, *Como constelar a otros individualmente* Mandalara, 10:00etan hasita.  
 ■ Maiatzaren 27, 28 eta 29an, Sergio Gozzi mediuma, Mandalara, 10:00etan.

**Balearen Eguna - Maiatzak 14**

■ Hiru ahizpak batelaren botadura, Mutiozabal aurrean, 10:30ean.

- Herri antzerkia, 11:30ean.
- Sardinak eta sagardoa, plazan, 12:00etan.
- Saregileei omenaldia Saltxerek, plazan, 13:15ean.
- Bertso saioa, 13:00etan, plazan.
- Talaimendi Txaranga, 14:00etan.
- Herri Bazkaria, Etxeluzen, 14:30ean.
- Elektrotxaranga, 16:00etan hasita.
- 20 enbarkazio erriean, 16:30ean.
- Dantza saioa, plazan, 19:30ean.
- Kriseilu jaurtiketa Gure Esku Dagok antolatuta, plazan, 21:00etan.
- Erromeria, plazan, 23:00etan.
- DJak, Etxeluzen, erromeria eta gero.

**Garagardo Azoka**

■ Maiatzaren 27, 28 eta 29, plazan, Orio Arraunketa Elkartek antolatuta.

**Kukuarri eguna**

■ Maiatzaren 29an, Kukuarri Eguna.

**Aia**

**Asentzio feria**

■ Maiatzaren 22an, Asentzio feria.

**Erromeria Aristerrazun**

■ Maiatzaren 1ean, erromeria Bide Batez taldearekin, 18:30ean

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	12:28 eta ____	06:00 eta 18:32	☾
02	00:57 eta 13:40	07:16 eta 19:41	☾
03	02:05 eta 14:40	08:18 eta 20:40	☾
04	03:02 eta 15:32	09:12 eta 21:33	☾
05	03:54 eta 16:20	10:01 eta 22:23	☾
06	04:42 eta 17:06	10:48 eta 23:10	☾
07	05:29 eta 17:51	11:34 eta 23:57	☾
08	06:15 eta 18:37	12:19 eta ____	☾
09	07:02 eta 19:23	00:44 eta 13:05	☾
10	07:51 eta 20:12	01:32 eta 13:52	☾
11	08:42 eta 21:04	02:23 eta 14:42	☾
12	09:39 eta 22:02	03:17 eta 15:37	☾
13	10:44 eta 23:10	04:18 eta 16:40	☾
14	11:59 eta ____	05:27 eta 17:51	☾
15	00:25 eta 13:12	06:39 eta 19:03	☾
16	01:34 eta 14:13	07:43 eta 20:05	☾
17	02:31 eta 15:01	08:35 eta 20:55	☾
18	03:17 eta 15:41	09:18 eta 21:37	☾
19	03:56 eta 16:16	09:56 eta 22:14	☾
20	04:31 eta 16:49	10:31 eta 22:50	☾
21	05:05 eta 17:22	11:05 eta 23:25	☾
22	05:38 eta 17:54	11:39 eta 23:59	☾
23	06:12 eta 18:27	12:13 eta ____	☾
24	06:46 eta 19:01	00:35 eta 12:48	☾
25	07:21 eta 19:37	01:12 eta 13:24	☾
26	08:00 eta 20:18	01:51 eta 14:05	☾
27	08:45 eta 21:05	02:35 eta 14:50	☾
28	09:38 eta 22:02	03:26 eta 15:44	☾
29	10:42 eta 23:09	04:26 eta 16:48	☾
30	11:55 eta ____	05:33 eta 17:59	☾
31	00:23 eta 13:06	06:42 eta 13:06	☾

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**MAIATZA:**

- Ilean, Larrañaga
- 2an, G. Artiñano
- 3an, Lasa
- 4an, Zulaika
- 5ean, Iriarte
- 6an, Lasa
- 7 eta 8, Mutiozabal
- 9an, Izpizua
- 10ean, Zulaika
- 11n, Lasa
- 12an, Larrañaga
- 13an, Mutiozabal
- 14 eta 15, Etxeberria
- 16an, Zulaika
- 17an, Iriarte
- 18an, Lasa
- 19an, Mutiozabal
- 20an, Lasa
- 21 eta 22, G. Artiñano
- 23an, Iriarte
- 24 eta 25, Lasa
- 26an, Etxeberria
- 27an, Lasa
- 28 eta 29, Zulaika
- 30 eta 31, Lasa

- Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



902 100 040  
gipuzkoa.eus

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Iparraldeko Foru  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA


ERRENTA2015

# ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenez, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen dizun euro bakoltza zugar inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO  
URTEKO AURREKONTUA

# 812M€



# keinu lorezaintza



*Edozein txoko lorategi bihurtzeko aukera  
Lorategien diseinutik hasita ezarpen, mantenu eta beharrezko kudeaketa lanak*

Eusko gudari 11  
647028485  
Orio

irakurri,  
gozatu eta  
oparitu

## GOZATU BIDAIAZ



## ORION EUSKARAZKO LIBURUAK IRAKURTZEA BULTZATZEKO KANPAINA

**Informazio gehiago:**  
Udal liburutegian  
Ontza liburu-dendan  
Mauka liburu-dendan  
Iturain estankotan

irakurri,  
gozatu eta  
oparitu

1.

Hartu euskarazko liburu bat liburutegitik, eraman etxera eta... gozatu bidaiaz.

2.

Irakurtakoan itzuli, irakurle-libro bete eta jaso zure erosketatxekoa liburutegian.

3.

Erosi beste liburu bat %35 merkeago zure bekeka erabiaz.

4.

Oparitu erositako liburua: sonido, lagun, lankidearen bai,... edo zure buruari, merezi duzu eta.

Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko bekeka lortuko duzu.

Partekatu zure irakurtzearen 31ra, zure herriko liburutegian. [www.topagunea.eus/irakurri](http://www.topagunea.eus/irakurri)

**Antolatzaileak:**
**Babesleak:**
**Laguntzaileak:**

<b>HERRIAK ETA TOKOAK ARTOPILATZALEAK</b>	<b>Harria</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k)	<b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k)	<b>Tolosa</b> (100k) <b>Tolosa</b> (100k) <b>Tolosa</b> (100k) <b>Tolosa</b> (100k) <b>Tolosa</b> (100k)	<b>Lekio</b> (100k) <b>Lekio</b> (100k) <b>Lekio</b> (100k) <b>Lekio</b> (100k) <b>Lekio</b> (100k)	<b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k)	<b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k) <b>Alkorta</b> (100k)
---	--	---	--	---	---	---

